

FOTO IBAI

■ Nicolas Favresse.  
Rubenthor 8a+



FOTO KARI

■ Zigor. Los tigres del norte 7c

## TURTZIOZKO SENTSazioak

### Zigor Arteaga

**A** SPALDITIK nengoen Turtziozko topaketetara etortzeko gogoekin, aurreko urteetan ezin izan bainuen parte hartu. Azkenean, aurtan izan dut aukera eta nire lehen aldia berezia izan da. Etxetik hurbil eduki arren, gutxi ezagutzen dudan eskalada eskola da hau, benetako aukera bistaz eskalatzea gustukoa dugunontzat. Eta hori izan da, hain zuzen, topaketetako txapelketa egunean egindako apustua, ahalik eta bide gehien bistaz eskalatzea.

Goiz hasi dugu eguna, eta eguzkitsu datorrela dirudi. Bertoko fanatikoek eskalatzeko bero gehiegi egingo duela diote, halako eguzkiarekin zaila izango dela Turtziozko plaka tente horietatik igotzea. Ez dut uste arazorik edukiko dudarik, nire gorputzak berotasun puntu hori behar baitu harkaitzean gustura sentitzeko. Hormen oinaldean giroa alaitzen doa, gero eta eskalataile gehiago, eskalatazaileen lagunak, argazkilariak, gurutze gorriko gazteak... Egun bikaina lagun artean igaroko duguna.

Bide erraz pare bat eskalatu ostean, presentitzen naiz helduleku txikietatik estutzeko eta "Savage" izeneko bidea aukeratu dut nire mugak non dauden ikertzen hasteko. Hau bide berezia, bai. Helduleku txikietatik tiratzea baino, gorputzaren kokapen egokia eta oreka bilatzea eskatzen du eskalada honek, zaila izanik ere,aldi berean oso

erakargarria, ez baita Turtziozko ohiko eskalada estiloa. Katera heltzea lortu dut pozik eta energia berezi bat sumatu dut gaur, bereziki arina eta moldagarria sentitzen naiz harkaitzarekin bat egitean. Zaila da harkaitza laztantzean eta honek era berean erantzuten dizunean sentitzen dena lerro hauetan azaltzea, baina benetan diotsuet zoriontsu sentitzen garela une horietan.

Jabi, Jon, Eneko, Kris, Ruben... sokakideak aldatuz doaz. Batekin, bestearekin, barre algarak, animoak... Eguna aurrera doa, baina oraindik orduak ditugu eskalatzeko. Eguneko erronka handienari ekingo diot benetan kontziente izan gabe: Aritziok ekipatutako "Jimmy Hendrix" bide aluzinantea Iturburu sektorean, 30 metro luze. Barruan dudan guztia eman behar izan dut goraino heltzeko, eta hemen bai helduleku txikietatik tiratu behar izan dudala! Badirudi indarrek ez dutela gaur askoz gehiagorako emango, baina gogoek sarritan mirariak egiten dituzte eta sorpresak egongo dira oraindik egunaren amaieran.

Krisek "Malkoak" bidean borrokatu du nire atzetik, bai eta goraino heltzea lortu ere. Ruben "Lehendakari Kolumnari" bidean aseguratu dugu eta bere trebezia ederki

erakutsi digu, ez baitu izerdi tantarik bota behar izan bide ikaragarri hau eskalatzeko. Eguzkiak alde egin du jada eta jasotzeko unea iritsi dela dirudi. Kris, Ruben eta hirurok bakarrik gelditu gara eta beste guztiak herrira jaitsi dira. Oharkabean nire begirada Lehendakariaren ezkerreko plaka grisera desbideratu da. Iluntzen ari da eta ia argirik ez dago, baina agian nahikoa izango dut Txirritak ekipatutako "Udaondo" bidea eskalatzeko. Lagunei esan diet bide bat gehiago eskalatzeko dudala eta harridura aurpegiarekin begiratu didate. Hala ere berehala ekin diote ni aseguratzeari. Hasiera fisikoa txorreradun desplome batean eta pausu ederra gaingitu behar da plakara sartzeko. Pixkanaka pixkanaka oinetako mugimendu oso teknikoak egin ditut bata bestearen atzetik, hori da nire estiloa: oinen gaineko eskalada eta atzamarrentzako helduleku txikitxoak. Hegan noala iruditzen zait. Ez dakit nola, oraindik ez dut oso ondo ulertzen, baina gora heltzea lortu dut erdi ilunpetan.

Gaua heldu da ilargia lagun duela eta orain bai eskalada saioa amaitu zaigula. Ondorengo uneak lagun arteko giroan gozatzeko utzi ditugu: irabazle txapela jantzi, sari banaketa, afari herrikoia, eta festa alaia. Dantza eta dantza hurrengo egunean lehen eguzki izpiek argitzen gaituzten arte.


Zorionak antolatzaileei eta Turtziozko eskola ekipatu duzuen guztioi. Eskerrik asko benetan. □

■ Jendea. Gudari Bekoa sektorea




FOTO JAMIE ALONSO

## LEHENDAKARI



## LITTLE WATER



1	PINOKUPA	6B	18 m
2	GILLAUME el único francés majo	6B+	20 m
3	ESCROTO FOR EVER	7A	25 m
4	BURUKO MINA	7B	28 m
5	GOZO JABE	7C	30 m
6	ESTANISLAO	7B+	32 m
7	ARDI BELTZA	7B	32 m
8	LEE WAY	7B	22 m
9	THUNDERSTRUCK	8B?	35 m
10	LEHENDAKARI KOLUMNARI	8A	35 m
11	TOMASA	8B?	35 m
12	UDAONDO	7B+	22 m



FOTO: IBOIN

1	ILARGI GAUA	6B+	15 m
2	IHAUTERIA	6C+	18 m
3	TRAGALDABAS	7A+	20 m
4	EGUNSENTI	7C	20 m
5	REAL FORCE	8B?	22 m
6	GABARRA SUBMARINE	7B+	25 m
7	LITTLE WATER	7B+	18 m
8	DESPRESTIGE	7A	25 m
9	DIEDRO MALLORY	6B	22 m
10	TXAPAGORRIAK	7C	22 m
11	UNEA	7C	25 m
12	PLACER DE ABORTAR	?	20 m
13	P. ABORTAR (BARIANTEA)	6C	22 m
14	EKOGRAFIA	6A	28 m
15	ZUAZUA SUA TA SUA	6A+	30 m
16	TETE TXUPETE	6C+	37 m
17	JATXI	6C+	35 m

## DATU INTERESGARRIAK

### NOLA HELDU

Bilbotik Balmasedara doan Bi-636 errepidea harturik, Zallaraino joan behar da lehenik. Bertan Artzentaleserantz desbideratu eta Villaverdera heltzean eskuinetara hartuko dugu. Hiru kilometro igarota Turtziozen agertuko gara. Beste aukera bat Bilbotik Santanderrera doan A-8 autobidea hartu eta Guriezoko irteeran uztea da, ondoren, Turtziozera garamatzan bidea hartzeko.

Behin herrian, Eliza albotik Gordon auzora doan bidea hartu behar da. Uraren tratamendu estazioa pasatu eta gero, ehun metroara ezkerretara irteten den pista jarraitu behar da. Hondakindegia pasatu eta pistaren bukaera baino lehentxoago aparkaleku txiki bat aurkituko duzue. Kotxea ondo aparkatu, besteentzako tokia utziz eta, batez ere, pistaren bukaeran dagoen bordarako pasabidea libre utzi, bertako jabea sarritan traktorearekin pasatzen baita.

### URA

Herrian hainbat iturri aurkituko dituzue, parkean, zeren plaza alboan...

### EROSKETAK

Herrian supermerkatu txiki bat aurkituko duzue erosketa txikiarentzako. Beste guztia Zallan egin beharko duzue.

### JAN ETA LO

Furgonetarekin lo egiteko txoko asko aurkituko dituzue, baina ez ditut aipatuko denak toki berean ez pilatzeko. Bestela Hotel Rural delakoan logelak daukate eta herriaren sarreran, Zallatik etorrita, aterpetxe bat dago. Azken hau aurretik hartu behar da eta 30 lagun inguruzentzako tokia

dauka. Informazio gehiago [www.enkarterri.org](http://www.enkarterri.org) webgunean aurkituko duzue.

Ondo bazkaltzeko edota afaltzeko, Hotel Ruralean dago aukera. Kafea, pintxoak, bokatak eta garagardo freskoak, aldiz, El Tilo tabernan.

### KROKISAK

Krokisak eta bide berrien informazioa El Tilo tabernan aurkituko dituzue. Gainera Urrian ateratako gida ere bertan dago salgai. Gidarekin lortutako dirua ekipamendu berrietarako erabiliko da, animatu eta eros ezazue.

### ARROKA

Kareharria da, kalitate handikoa. Horma bertikalak edo erori gutxikoak. Erregeletak, ur-tantak, zuloak... dira nagusi, baina txorrekak eta erori handiko hormak ere badaude.

### SASOIRIK ONENA

Urte guztian eskala daitkeen arren, udaberria eta udazkena dira urtarorik onenak. Hormak hegomendebaldera begira daude (itzala 14:00 arte).

■ Eneko Pou  
Urtxintxaren ikara 7a+

### ESKALADA MOTA

Gehienetan oso teknikoa da. Bide luze eta gogorak dira eta, aseguruaren arteko distantzia handiagatik, zailtasuna gaizto beharrekoa. Azken finean kirol eskalada da, baina ukitu alpinoa duena. Funtsezkoa da arroka ondo irakurtzea eta lasai eskalatzea.

### ZAILTASUNA

Ez da hasiberrirentzako eskalada eskola. Seigarren gradua menperatzea ezinbestekoa da. Zazpigarren gradua da bide gehien zailtasuna, eta bide ugari ez dute kateatze askorik. Baina ez ahaztu gradua subjektiboa eta gutxi gorabeherakoa dela.

### EKIPAMENDUA

Orokorrean oso ona: M10 parabolak eta mosketoidun kateak, gehienak herdoilgaitzak.

### GOMENDIOAK

Bideetan ez da Magnesio askorik ikusten. Honek benetan bistaz eskalatzeo aukera ezin hobe ematen du. Ez egin "kleka" rik. Bistaz eskalatzea plazer bat da. Ez ezazu izorratu.

Bide askoren luzera 30-35 metro artekoa da, eta baten bat are luzeagoa. Erabili 70 m-ko soka gutxienez, eta adi ibili sokakidea jaisterakoan. Aseguratzaileren papera garrantzitsua da beti, eta hemen arago, erorketa luzeak egon baiditezke. Kirol eskalada izan arren, kaskoaren erabilera gomendatuko dizuet. Bakoitzak egin dezala aukera, baina buruz behera eroriz gero kaskoak bizitza salba diezazuke, hemen eta edozein lekutan. Zuk zeuk ikusi.